



Oñati aldeko ikuspegixa 1900 inguruan

Beste inoiz be azaldu izan dittugu antxiñako fotografixen atal honetan gure herriko bista zaharrak. Baiña gaurko hau barrixa dogu. Beasaingo **Fernando Labordek** ekarri dau udal artxibora eta guri **Izar Salaberri** artxibozaiñaren bittartez heldu xaku. Argazkixa Fernandoren aittajaunak, **Feliziano Laborde Urretzarazuk**, ataratakua da. Feliziano antzuolarra zan jai-xotzez, baiña Tolosan urte batzuetan tipografo moduan lanian jardun eta gero, **Oñatira etorri zan Garaiñeko pospolo-lantegira**, berau itxi baiño lehentxuago. Orduan atarako eben Altamira aldetik gure herriko fotografixia. Noizkua dan zihatx samar erabagi leike agerketan diran eraikuntza batzuk eta falta diran beste batzuk kontuan izanda: **1899-1900 ingurukua**. Hona, hori pent-sau eragitten doskuen arrazoiak:

- Garaiñeko **pospolo-fabrika barrixa** egin barik eguen artian. Arboledako malatu onduan, gaur egunian zutik jarraiketan dauen pabelloi hori 1901ekoa da. Ezaguna bihurtu zan 1918xan, **Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuko** ekintza eta ikuskizun askotarako **areto haundi** izateko egokittu euenian.

- Orain dala urte gutxi Olalde baserrixaren aurrian eretsitako **Pilar Enea** etxia 1900 inguruan egin zan **Jose Elorza Altube** industrialarendako **Kamiño-gaiña** izeneko parajian, Kurtzeko Asensio Aiaituiren lur-saillak erosi ondoren. Pepe Elorzaren lehenengo emaztia Pilar Etxaluze zan eta horregatik jarriko otsan izen hori. Argazki honetan orduantxe jasoten diharduela ikusten da. 1936ko gerria baiño lehentxuago hasi ziran egitten onduan **Loyola** tokolate-fabrikia.

- San Juan kaliaren eta Etxebarrialde baserrixaren artian eraiki zan Arkauztarren palaziotxua be, **Goizeko Izarra**, egitteko dago, baiña horretarako sailla hesittuta daguela emuten dau. Goribar auzoko Antzoko baserri parian laister jasoko ziran **Aloña alde** eta **Ibai ondo** izeneko Ginea-Elorzatarren txalet politak be eztira agiri.

Apur bat erreparau ezkeru, **beste xehetasun interesante batzuk** be eskintten dosku fotografixiak: **plaza nagusi aldia**, merkau barik eta pelotaleku ondoko arbolekin; aspaldiko **San Migel parrokixia** eta egin barri zan **agustiñuen komentua eta elizia**, gerotxuago botako zan lehenengo kanpantorriarekin; herriko ospittala, **unibersidadia** barriztau barik eta haruntzatxuago, **Gorriñetxe**, ospittaleko gaixo kutsakorrak aparte eukitteko lekua; **Santa Anako komentu eta ortuak**, hormaz inguratuta, eta **San Juan kaleko etxepillatxua** atzetik ikusitta; kanponsaturako bidia arbola artian, **Aingeru Guardako santutxua** eta **Etxebarrialde baserrixa**; **Garaiñeko pospolo-fabrika zaharra** tximinixa luziarekin eta **Arrazolatarren kurtiderixia**; zenbat soro eguen orduan **kaletik hurrian**, Ibarra, Goribar eta Torrealde; eta beste hainbat gauza.

J. E.

Milla esker Fernando Laborderi eta Izar Salaberri artxibozaiñari argazkixaren barri emutiarren, eta Xabier Zelaiari argibide batzuk samurketiagatik.

Oharra: fan dan hilleko fotografixa zaharran ezkeben beheko illaran agiri dan seigarren ikasliaren izenik jarri: **Iñazio Madina** da, Atzeko kalekua; eta bigarren illarako lehenengua ezta **Luis Zubia**, **Xanti Zubia** baiño.